

NIZAKO BILERA. Euskal Herriko ordezkariak izango da estatuburuen bilera salatzeke



ANGELA MEJIAS

Xabi Larralde eta Jeronimo Prieto ABko kideak, atzo Miarrizetik atera zen autobusean.

Hur Gorostiaga | MIARRITZE

Bart arratseko hamarretan Miarrizetik abiatu zen azken autobusa. Euskal Herritarrok, Abertzaleen Batasuna, Koordinaketa, Amnistiaren Aldeko Batzordeak eta LAB mugimenduek deiturik, 500 herritar baino gehiago partitu ziren Nizako bidean. 12 orneko bidaia luzearen ondoren, gaur goizean helduko dira Frantziako itsasbazterreko hiri ezagunetara.

Euskal herritarrek mundializazioaren kontrako mugimenduekin bat eginen dute itsasbazterreko hirian. 1997an Amsterdamen, iaz Kolonian eta aurtan berean urrian Lapurdin gertatu bezala, milaka herritar espero dira Europako 15 estatuburuak antolatu duten goi bilerari aitzin egiteko, kontra-gailurraren ekimenetan. Hainbat iturriren arabera, 50.000 eta 100.000 jende bitartean espero dituzte, *Seattle efektua* dela medio.

Euskal abertzaleendako, Europako politikaren baitan he-

Populuen Europa aldarrikatuko dute Nizan 500 euskal herritarrek

Hamar autobus abiatu dira, EH, AB, AAB, Koordinaketa eta LABen deiari ihardetsirik

rrien eskubideak errespetatuak izan daitezen aldarrikatzea izanen da helburu. «Europako oinarrizko eskubideen ituna osatzeko gauza ona da, baina, Europa politikoa osatzeko, demokratikoa izatea ezinbestekoa da. Ondorioz, herrien eskubideak aitortu beharko ditu, eta alor sozialean pertsonen eskubideak babestu», adierazi zuen Miarrizten Xabi Larralde Aber-

tzaleen Batasuneko bozeramaileak. AB eta EHko ordezkariendako, Britainia eta Korsikatik joanen diren ordezkari politikoekin harremanak lotzeko unea izanen da, baita Kurdistandik etorriko direnekin ere. Amnistiaren Aldeko Batzordeek eta Koordinaketak, aldiz, herri haietako errepresioaren kontrako mugimenduekin batera egingen dute gaur arratsaldeko

manifestaldiaren ibilbidea, preso- en eskubideak errespetatuak izan daitezen aldarrikatzeko.

Euskal mugimendu abertzale ezkertiarak Frantzia eta Europako bertze mugimenduekin bat eginik «Europa sasi-sozialari ez» erranen diotela azaldu zuen, aldiz, Amaia Fontan Iparaldeko LABeko ordezkariak. «Europako itun soziala erabakitzekoa dute 15 Estatu buruek, baina argiki salatu behar dugu adostuko duten kartak ez duela inolaz ere funts demokratiko ez eta sozialik ere» azpimarratu zuen. «Langileen eskubideak ez ditu onartzen, bizitza duin baterako baldintzak ez dira agertzen, etxebizitzareko eskubidea zangopilatzen da finkatu nahi duten itun berrian. Kapitalismoaren meneko Europa eraiki nahi dute» salatu zuen. LABeko idazkari nagusi Rafa Diez Nizako bidean abiatu zen bart arratsean, «etorkizuneko Europa herritarrei begira eta ez herritarren bizkar» erakitzeko mezua zabalduko dutela adierazirik.

AEK

Euskal Diasporak elkartasuna adierazi dio AEKri

Erredakzioa | DONOSTIA

Euskal Diasporak, Internet bidez funtzionatzen duen euskal elkarteak, elkartasuna adierazi dio AEKri, Baltasar Garzon Entzutegi Nazionalako epaileak haren aurka hasitako prozesua ikusirik.

Elkarteak adierazpen bat helarazi die munduko alderdi politiko, gobernu, hedabide eta instituzioei. Bertan, Espainiako Gobernuak «bakerako duen bokazio falta» nabarmendu dute. Era berean, agerian jarri dute Espainiako eta Frantziako gobernuak uko egiten diotela Euskal Herriaren autodeterminazio eskubidea negoziatzeko elkarriketari. Adierazpenak atxikipen ugari jaso ditu mundu osoan.

Era berean, dei egin diote Aznarren gobernuari «gatazkaren alde guztiekin hizketan» has dadin eta «politika errepresiboa eta euskara eta euskal subiranotasunaren kontrako bereizi gabeko jazarpen judizial eta mediatikoa» utz dezan.

EH

'El Diario Vasco'-ren ildoak kritikatu dute hainbat lagunak

Erredakzioa | DONOSTIA

Elkarretaratzeak egin ziren atzo iluntzean Gipuzkoan, Donostian eta Eibarren, *El Diario Vasco* egunkariaren informazio ildoak eta ildo editoriala salatzeke. Donostian 100 lagun baino gehiago bildu ziren, eta 50 bat Eibarren, EHk eginiko deialdiari jarraituz. Joseba Permach EHko kideak «kritika politikoaren» barruan kokatu zuen atzoko ekitaldia. «Brunetearen helburua Espainiaren batasuna defenditzea da, eta brunete mediatikoak helburu bera du. Hor kokatzen dugu *El Diario Vasco*-ren jarrera».

Aipatutako egunkariak «aseptiko» gisa agertu nahi izaten duela uste du Permache, baina «informazio ildoak eta ildo editoriala guztiz kritikagarriak» direla.

Estaturik gabeko nazioek European izan behar duten «protagonismoa» defenda dezala eskatu dio EAK Aznarri

Garbiñe Olaizola | DONOSTIA

Eusko Alkartasunak legez besteko proposamen bat aurkeztu du Diputatuen Kongresuan, Ezquerria Republicana de Catalunya (ERC) alderdiarekin batera, Espainiako Gobernuari eskatzeko estaturik gabeko nazioek European izan behar duten «protagonismoa» defendi dezala. Proposamenaren berri

eman zuten atzo Begoña Lasagabaster EAKo diputatuak eta Onintza Lasa EAKo bozeramaileak.

Europako Batasuneko estatuburuak bihar hasi eta larunbata arte Nizan (Frantzia) egin behar duten goi bileraren ildotik egin dute eskaera bi alderdiek.

Lasagabasterrek gogoratu zuenez, Amsterdamgo goi bile-

ran estatu batzuek «nazioen subsidiaritatearen printzipioa» onartzen zen deklarazioa sinatu zuten. Espainiak ez zuen izenpetu.

Nizako bilkuran ere autonomia erkiegentzat «garrantzi handiko» gaiak jorratuko direla esan zuen EAKo diputatuak. Hala, Amsterdameko Itunaren artikulua baten aldaketa eskatzeko Belgikak aurkeztu

duen proposamena eztabaidatuko da. Horren arabera, «estatuen azpitik dauden erakundeek» Justizia Auzitegian parte har dezakete modu zuzenean euren eskumenak defenditzeke. Lasagabasterrek dei egin zion Jose Maria Aznarren Gobernuari «erkidegoen errekonozimendua eta eskumen propioak dituen nazionalitate aniztasuna» bete dezala.